

**2016KO MARTXOAREN 22AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bia.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bapateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko otsailaren 4ko akta onartzeko proposamena.

2016ko otsailaren 4ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- BAKE EPAILEA. Titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena

Alkate jaunak (EAJ-PNV), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.

Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiak eskatuta 2015eko abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Web orrian, Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamenaren beharra argitaratu zen, lau urtetarako izendatutako Bake Epaile titularra eta ordezkoaren epea amaituta dagoelako. 2016ko urtarrilaren 29 bitarteko epea eman zen eskaerak aurkezteko eta epe horretan sei eskaera aurkeztu dira, aipatutako karguak betetzeko.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Alkateak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

- Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile titularra izendatzeko ondorengo andrea proposatzea: GENMA LARRAÑAGA ARBELAITZ, Beasainen bizi dena.
- Eusko Autonomia Elkarteko Auzitegi Nagusiari Bake Epaile ordezkoa izendatzeko ondorengo jauna proposatzea: JOSE LUIS DIEZ ZURUTUZA, Beasainen bizi dena.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- TRAFIKOren ORDENANTZA ALDATZEA: hasierako onespena.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), antolakuntza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Antolakuntza Batzordeak, Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenantzaren inguruan (TAO); Udalbatza Osoari eramaten dio honen aldaketa bere onarpenerako. Aipatutako aldaketak ondorengo artikuluei eragiten die: 4; 9.7; 9.8; 10; 15.1.1; 15.3; 15.5; 15.8; 15.9; 19.1; 19.5; 20; 21; 25.10; 25.14; eta baita ere arau hauste batzuen kopuruan.”

Alkatea jaunak azaldu du aldaketa horien arrazoiak direla, trafiko Lege berria 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua onartua izana eta indarrean sartu izana. Horrek

eragiten du hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen Udal-ordenantza egokitzea. Aldi berean, bai bidegorria, baita oinezkoentzako eremuetan ere hartu beharreko neurriak proposatzen dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK:

- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.
- Gazte laguntzaileentzat bekak.
- Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko Lehendakaria den Malu Vallés andreari hitza eman dio eta honek ondorengo adierazten du: “Lo que sometemos a votación es algo a lo que dimos el visto bueno en la Comisión por unanimidad, como son las becas para jóvenes cooperantes de la localidad, para lo que se destinan 12.227,00 euros, las ayudas de emergencia a acciones comunitarias que son de 22.925,00 euros y la acogida a menores con una partida de 10.791 euros. En estos tres programas no ha habido ninguna modificación sustancial respecto de la legislatura pasada. Haré, no obstante, un pequeño resumen para explicar en qué consisten cada uno de los programas. Con el primero de ellos se trata de sensibilizar a los jóvenes de Beasain para que puedan colaborar con ONGs acudiendo a los países en desarrollo y ayudan a materializar los programas que están en curso y al llegar a Beasain nos dan cuenta de toda la información. Con esto quiero decir que no sólo se trata de un programa para ayudar a esos países, sino también para hacernos partícipes del enriquecimiento que supone esa colaboración. Las ayudas de emergencia se dan cuando hay una solicitud concreta (terremoto de Haití, ebola, etc.), y el Ayuntamiento de Beasain en la medida de lo posible colabora con esos proyectos. El siguiente programa es el de los menores que acuden a Beasain. Todos los conocemos. Últimamente sólo vienen niños del Sahara. El año pasado vinieron tres. Se trata de sufragar los gastos para que vengan aquí.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena. Horren ondorioz, oinarri hauek onartu dira:

Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak:

EKINTZA GIZATIARRENTZAKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

1- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona

eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrean daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaia, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskuratzeko eskaerak, urriaren 31a arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera, Informazio eta Erregistro bulegoan aurkeztu beharko dira (8:30etik 13:30era bitartean, ekainetik iralera izan ezik, hil horietan harrera-ordutegia 8:00etatik 13:00etara izango baita) edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorraren 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Eskaerak irizpide hauek kontuan izanda ebatziko dira:

- Larrialdiak edo hondamendiak eragindako kaltetuen kopurua
- Laguntza jasoko duten pertsona kopurua
- Premia-premiazko ekintzetarako (ura, janaria, jantzia eta etxebizitza)

5.- Aurrekontua.

20.481.230.20.01 kontusail espezifikoa jasotzen den irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko elkarte edo erakundeek aurkeztutako ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako diru-laguntzen zenbatekoa 22.925 eurokoa da.

6.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan. Eskaerak aurkezten diren heinean ebatziko dira.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe amaieratik zenbatutako 6 hilabeteko epean.

8.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

9.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren frogagiria. Froga-agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, derrigorrez Beasaingo Udala eta emandako diru-kopurua azalduko dira.

2. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz, gastuen zerrenda xehatua eta dagozkion faktura originalak edo kopiak behar bezala legalizatuak, zeharkako gastuenak barne (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoan erabilera justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (Emandako dirulaguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute), nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahikoa justifikazio dela ulertzen delako.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru laguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Gazte laguntzaileentzat bekak:

BEASAINGO GAZTE LAGUNTZAILEENTZAT BEKAK

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzara ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona

gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartzen dute garapeneko lankidetzak ekintzetan EAEko GGKE baten bidez gutxienez ere hilabete bateko denboraldia eginez eta horrek bide ematen die egoera tokian ezagutzeko.

2.- Aurrekontua

20.481.230.20.01 kontusail espezifikoan jasotzen den Gazte laguntzaileentzat beka programarentzako diru-laguntzen zenbatekoa 12.226,67 eurokoa da.

3.- Diru-laguntza ematen zaien gastuak.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu, herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteteko zergak barne eta baita hautatutako parte hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu gastuak eta mantenuarenak ere.

Gehienera 3.000 € ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

4.- Eskatzaileak.

Programa honetan parte hartzeko, gazteek, eskaera egin aurretik gutxienez ere 18 urte beteak izan behar dituzte, gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen erroldatuta egon behar dute eta ezein GGKEekin ere lan harremanik ez dute izan behar.

5.- Hautaketarako irizpideak.

Hautagaiak aukeratzeko orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera burutu behar den herrialdeko hizkuntza ezagutzea.
- b) Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateak ikasten ari direla ziurtatzea.
- c) Lan-egitasmoa.
- d) Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea.
- e) Gobernu Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea.
- f) Gazte-elkarte bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea.
- g) Euskararen ezagutza.
- h) Aurreko urteetan programa honetan parte hartu ez duten gazteek izango dute lehentasuna.

6.-Eskaerak. Agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- NAren fotokopia.
- Curriculum Vitae-a: Laneko bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana), agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan).
- Tokiko erakunderen baten abala (ekintza burutu behar den herrialdekoa) delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena eta lan egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.
- Lan-egitasmoa: Txostenak, 1990. Urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. Artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.
- Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza:

-Bidaia gastua: (hegazkina+bisatua+zergak)

-Aseguru-polizaren gastuak

-Beste gastu batzuk: osasun , ostatu eta mantenu gastuak eta sentiberatze-jarduera antolatze gastuak (argazkiak...)

7.-Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskuratzeko eskaerak, maiatzaren 31a arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera , Informazio eta Erregistro bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean, Herri Administrazioen eta Administrazioko Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Udalak egiaztatuko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta haiekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

8.-Proposamenak egin eta ebatzi.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizateko batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruzko iritziekin eta Alkatetzari aurkeztuko dio hark ebatz dezan.

Beharrezkoa ikusi ez gero, Batzordeak elkarrizketa bat egin diezaieke eskatzaileei aurkeztutako agiriez informazio gehiago biltzeko.

9.-Pertsona eskatzaileei jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie diru laguntza eskatu duten pertsona guztiei, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

10.-Diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharko diren baldintzak.

Ebazpenean bertan jakinaraziko zaie onuradunei diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituztela:

- a) Esleitutako jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.
- b) Jarduera egin behar den Herrialdean, ekintza bukatu arte irautea, gutxienez hilabete bat.
- c) Proposatutako denboraldirako istripu eta gaixotasunen aseguru-poliza bat kontratatzea.
- d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak betetzea.
- e) Eskarmentu-aldia bukatu ondoren, bertan egindako lanaren memoria, irudiz osatua aurkeztea eskatzen da, eta baita ere Beasaingo Udalak sentiberatze jardueraren bat antolatu ezker, 2016ko deialdian aurkeztutako beste gazte laguntzaileekin batera parte-hartzea. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.
- f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izana ziurtatzea edo bereziki zer laguntza jaso diren adieraztea.

11.-Ordaintzeko modua.

Ordainketa, gastuen faktura edo agiri originalak aurkeztutakoan egingo da. Agiri hauek diru-laguntza onartu den urteko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Hegazkina, bisatua eta aseguru-polizaren gastuak, bidaia egin aurretik ordaindu ahal izango dira, baina beste gastu guztiak, aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ondoren ordainduko dira.

12.-Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa:

GARATZE BIDEAN DAUDEN EDO ZORITXARREN BAT JASAN DUTEN HERRIALDEETATIK DATOZEN HAURREN DENBORALDIRAKO HARRERA PROGRAMA

1.-Xedea.

Oinarri hauen xedea, garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurrak Beasaingo familietan harreran hartzeko diru-laguntzak arautzea.

2.- Aurrekontua

20.481.230.20.01 kontusail espezifikoa jasotzen den garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarentzako diru-laguntzen zenbatekoa 10.698,33 eurokoa da.

3.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Beasaingo Udalak honako gastuak ordaindu ahal izango ditu:

- *Bidaiak, arropa, oinetakoak, farmazia gastuak, betaurrekoak, dentista gastuak e.a.*

Gehienera 1.500€ko diru-laguntza onartuko da haur bakoitzeko.

4.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEn baldin badu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor-ekonomikoak, beste deialdietan onartutako dirulaguntzen justifikazio falta...).

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskarari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze egutegiarekin batera.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik zeharkako gastuentzat, gehienera %7a bideratu ahal izango da.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitorpena.

Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

6.- Eskararak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskuratzeko eskarak, maiatzaren 31a arte aurkeztu daitezke.

Eskararak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera, Informazio eta Erregistro bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskarak eta berekin batera jasotzen diren agiriak ere, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta proposamena egingo dio Alkatetzari gaia ebatz dezan.

8.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

9.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, beranduenera ere, ebazpena emandako datatik zenbatutako 2 hilabeteko epean ordainduko da.

10.- Diru-laguntza zuritzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz, gastuen zerrenda xehatua dagozkion faktura edo agiri originalak sartuta, zeharkako gastuenak barne (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

2. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitorpena.

3. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo bestela adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

11.- Egiartzatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea."

5.- PROTOKOLOA. Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako.

Alkate jaunak (EAJPNV): "Emakumeen indarkeriaren aurkako protokolo bat landu da, EUDELe markatutako irizpideak jarraituz eta hainbat eragileen iradokizunak kontuan izanda. Eragileek gurera ekarri dute eta horrez gain kontraste bat eginda Beasaingo emakumeen elkarte eta talde feministekin. Berdintasun batzordetik datorrenez, bere lehendakariari hitza pasatzen diot."

Irma Arnaiz (EAJ-PNV) andreak: "Protokolo honen beharra antzematen zen herriko eragile ezberdinetatik. Esango nuke urteetan hutsune hori ikusi dela eta erakundeen konpromiso hori kontutan hartuta protokolo hori diseinatu egin da. Bi hilabete eman ditugu diseinatzeko bai bertako teknikariekin eta baita ere talde politiko guztiekin elkarpenak jasoz. Helburua, herriak dituen beharrak asetzea da eta protokola diseinatzea, jakiteko delikatua den gai honen aurrean nola jokatu behar dugun."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzia hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Un poco en la línea que ha comentado Irma. El partido socialista es consciente de que tenemos una lacra enquistada en la sociedad como es el problema de la violencia contra las mujeres. Las bases de este protocolo creemos que están cuidadosamente elaboradas y trabajadas, ya que todos los miembros de la comisión de igualdad aquí representados hemos sido partícipes del debate del trabajo y de un problema sensible, que ha dado lugar a un protocolo institucional. También subrayar la coordinación entre los diferentes departamentos del Ayuntamiento como son, bienestar social, policía municipal, igualdad, comunicación e incluso Ertzaintza. Pensamos que cada vez que nos enfrentemos a una denuncia de un problema como este, ha de ser el propio Ayuntamiento como institución, a través de su Alcalde y concejales, porte el estandarte de repulsa haciendo un llamamiento a la sociedad, sea la propia ciudadanía a nivel individual o a sus diferentes entes o agrupaciones sociales, culturales o feministas, adhiriéndose de este modo a los actos de protesta o denuncia que este Ayuntamiento pueda efectuar. Por otro lado creemos que este protocolo salvaguarda el derecho a la intimidad de las propias víctimas y sus familiares. Así pues, los socialistas vascos creemos que hoy es un día importante para nuestro municipio y votaremos con mucho orgullo a favor de este protocolo.”

Koldo Agirre jaunak (EH BILDU): “Guk batzordean komentatu zen bezala, oinarrian protokolo honen alde gaude, baina iruditzen zaigu formen aldetik, nahiz eta orain esan herriko elkarte ezberdinekin kontatu dela, oker ez bagaude batzordean ez zen horrelako informaziorik eman. Elkarte horien berri ez genuen eta gu behintzat gaur abstenitzeko asmoan gentozen, iruditzen zaigulako tokiz kanpo dagoela herriko elkarte ezberdinak parte ez hartzea eta horien beharra azpimarratu genuelako batzordean.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lehendabizi, Santi, mila esker. Esan bizi izan dena dela, batzordetik pasa eta batzordean landuta gero, dokumentua behin betikoa zenean udalerrian dauden, Asmube bezalako emakume elkarte edo Oriako Lamiak edo Institutuko talde feminista edo foroekin dokumentua kontrastatu dela eta eskertu egin dute dokumentua lantzea. Alderantziz ere egin zitekeen, baina egin nahi izan da dokumentua batzordetik pasa eta landuta zegoenean gainontzeko elkarteei azaldu.”

Amaia Barandiaran andreak (EH .-BILDU): “Azkeneko batzordean egon nintzen eta justu hori eskatu genuen eta batzorde buruak esan zigun ez zela beharrezkoa politikariak egin beharreko gauza zelako. Behin eta berriz esan genuen, baina nik uste dut hori garbi geratu zela.”

Irma Arnaiz andreak (EAJ-PNV): “Nik uste dut kontzeptuak garbi eduki behar direla eta ezin garela konfunditu. Batzordeak grabatuta daude eta batzordean esan zen protokoloa diseinatuta gero noski, beraiekin partekatuko zela. Etengabeko elkarlanean ari gara bai Institutoko taldearekin, bai foroarekin, bai Asmubekin eta baita ere Oriako Lamiakin. Hiru batzordeetan esan zena izan zen, lehenengo eskeleto eta protokolo instituzional bat diseinatzearen iritzikoak ginela. Bertan lau areatako teknikari profesionalak parte hartu dute eta politiko guztiak aukera izan dugu gure ekarpenak egiteko. Ondoren partekatuko da besteekin, eta horrela egin da. Niri ez zait iruditzen komenigarria denik dokumentu bat kalean ibiltzea eragile ezberdinekin, zehaztugabeko eragileekin, guk barruan ezer jakin gabe. Hori diseinatu eta gero beti esan da protokolo irekia izango dela eta gainera bizirik egon behar dena. Hemendik hiru hilabeteetara zer edo zer aldatu behar bada, aldatu egingo da. Beti termino horietan hitz egin da. Protokolo honen berri jakin dugunean, partekatu egin da.”

Zezilia Herrador andreak (EH BILDU): “Guk esan genuena izan zen, ez protokoloa onartuta egonda gero, guretzat beraiei aurkeztea ez zela nahikoa. Guk esaten genuena zen, protokolo kanketa mahai horretan (ez du zertan kanpora atera beharrik), parte hartu zezaketela eragile ezberdinak. Beste hilabeteko epea eskatu genuen azkeneko bileran, baina gure ustetan Pleno honetatik pasa nahi zen bai edo bai. Forma kontua da eta horregatik abstenitzen gara.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dut gauzak ez direla hain konplikatuak. Batez ere foroak eskaera bat egiten du protokolo bat egiteko. Batzordeak hilabetea du protokoloa lantzeko. Hilabetea pasa eta batzuk irakurri gabe zutenez beste hilabete ematen da. Ekarpenak jasotzen dira batzordean eta alde horiei aurkezten zaie. Onartzen dute eta udalbatzara ekartzen da onartzeko. Beste gauza bat izango litzateke emakume talde edo talde feministak aurka egitea eta lantzen jarraitzen nahi izatea, baina guztien adostasuna izan da ez dut nik hainbeste konplikazio ikusten, baina beno...”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EMATEN DENERAKO UDALAREN ondorengo PROTOKOLOA onartu da:

“ SARRERA

Honako dokumentu hau, EUDELen gomendioak oinarri hartuta Beasaingo Udalak sortutakoa da.

Indarkeria kasuen aurrean Udalaren eginbeharra lau ataletan banatu da:

1. Politikarien jendaurreko adierazpenak.
2. Hedabideekiko harremana eta emakumeen aurkako indarkeriaren berri ematea.
3. Biktimarekiko eta bere ingurukoekiko harremana bideratzea, sexu erasoak edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria agerpenak gertatzen direnean.

4. Sexu-erasoak edo emakumeen aurkako bestelako indarkeria agerpenak gertatzen direnean mobilizatzeko deialdiak egiteko prozedura

1.- POLITIKARIEN JENDAURREKO ADIERAZPENAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

Honako hau aintzat hartuta:

- Jendaurrera zabaltzen diren emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean Udaleko politikariei adierazpena egiteko eskatu ohi zaie (heriotzak, sexu-erasoak, kalean edo etxebizitzetan izandako erasoak, auzokideen artean ezagunak diren eta zabaltu direnean, eta abar)
- Adierazpen horiek oso garrantzitsuak dira herritarren artean emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko kultura sortzeari begira.
- Udalerrietan arin hedatu ohi diren informazio faltsuei eta esamesei aurre egiteko

bide egoki bakarra, batzuetan, adierazpen horiek egitea izaten da.

Kontutan izan beharrekoak

- Berdintasun sailak idatziz zein ahoz prestatu behar ditu politikariek agerpenetan azpimarratu beharreko ideia nagusiak:
 - Erasoa testuinguran kokatzea. “Gertaera” hitza edota hitz egiten duenaren “harridura” erakusten duten adierazpenak desagertu egin behar dira. Erasok indarkeriaren aurkako borrokan eta tokian tokiko berdintasunaren aldeko politiketan kokatu behar dira.
 - Erasoz guztiei garrantzia ematea. Erasoz baten berri daukagunean, ezagutuko ez ditugun eta isilpean geratuko diren bestelako erasoz asko ere badaudela azpimarratu behar da. Izan ere, gizartean emakumeak “erruduntzat” jotzen dituzten mito eta aurreiritzi ugari oraindik gaur egun ere badiraute. Beti azpimarratu behar da, emakumeak ez direla jasaten duten indarkeriaren erantzule; indarkeria hori ez da euren erruz gertatzen, eta horixe da azaldu behar duguna, lekua, ordua, erasotzailearekin duten harremana eta bestelako daturik kontuan hartu gabe.
 - Indarkeriaren erantzulea indarkeria erabiltzen duena baino ez da. Erasoz leku guztietan azaltzen direla azpimarratuko da. Oso zabalduta dago leku “arriskutsuez” hitz egiteko joera. Edonola ere, hori garrantzitsua da espazio publikoei baldintza hobekak eskaintzeko, emakumeentzako hiri eta herri seguruak eraikitze aldera. Dena dela, erasoz leku ilunekin edota bazterrekin lotzen dituen mitoa indartzea ekidin behar da. Horrelako lekuetan erasoz izaten diren arren, etxean ere gertatzen dira, tabernetako komunetan, jailetako txosnetan, lantokietan...leku guztietan. Honela, bada, leku arriskutsuak desagertzeari garrantzia emango diogu, baina kale iluna/emakumeenganako erasoa kausa-efektuaren ideia indartu gabe.
 - Behin eta berriz azaldu erasotzaile-profil zehatzik ez dagoela. Honi dagokionez, aurrerapauso handiak eman diren arren, emakume guztiok erasoz matxista baten biktimak izan gaitzkeela eta erasotzaileen artean gizon-mota jakinik ez dagoela azpimarratu behar da. Ez dugu inoiz biktimaren zein erasotzailearen nazionalitatea aipatuko; izan ere, gehienetan, atzerritarak direnean baino ez dugu egiten.
 - Indarkeriaren aurkako aurrerapausoz nabarmendu. Garrantzitsua da politikariek, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu baten aurrean egiten dituzten adierazpenetan, egin diren aurrerapenak azpimarratzea: berdintasun-politikak, indarkeriaren aurkako ekintzak (ikastaroak, zerbitzuak), emakumeek erasoz aurre egin diotenetan,

indarkeriaren aurkako emakumeen elkarteak, etab. Hau da, herri-erakundeetan zein elkarteetan egiten ari den guztia nabarmendu behar dugu.

- Biktimak salaketarik ez zuela jarri ez esan. Salaketarik gabe ere, salatu ez izana ez da esanguratsua. Salaketarik ez balego ere, gertatu daiteke udal zerbitzuren batean edo beste erakunderen batean kasuaren berri izatea. Salaketa, indarkeriatik ihes egiteko bide bakarra dela sustatu behar da. Salaketa jarri ondoren kenduko balute, datu hori eman behar da; ez da, ordea, esango zeinen zaila den emakumearentzat erasotzaileen eta ingurukoen presiopean salaketari eustea.

- Adjetiboak arretaz erabiltzea. Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako ekintzek haserrarazten gaituzten arren, adjetiboak behin eta berriz erabiltzeak ez du adierazpen instituzionala irmoago egiten. Hau da, gaitzespeneko adierazpena gertaera eta pertsonen buruzko mespretxuzko kalifikazioz josita egoteak ez du jendea sentsibilizatzeko edota kontzientziatzeko balio.

Herri-erakundeen eta politikarien adierazpenak ez dira beti hedabideetan hitzez hitz azaltzen, edo horien zati bat baino ez da agertzen. Horregatik, udalak dauzkan beste hedabide ofizial batzuen bidez mezuak zabaltzea garrantzitsua da, esate baterako, udal egunkaria, webgunea, gizarte-sare, informatzeko berripaper, eta abarren bidez.

Beasaingo udalak honakoa proposatzen du:

- Arrisku egoerak eta momentuak identifikatu, eta prebentzio lanak egitea (San Boskoeguna, Gabonak, Jazpana, garagardo eguna....). Adibideak: Txosnetako basoetan ikurrak jartzea, egun giltzarrietan mahai informatiboak antolatzea....).

- Beharrezkoa irizten zaio, hilketa denean, emakumearen izen-abizenak esateari,

Ez, ordea, gainontzeko erasoetan.

- Udalak, herrian dauden panel informatiboak, sare sozialak eta prentsa oharrak erabiliko ditu era honetako erasoak salatze, sensibilizazio lanetarako eta datuen berri emateko.

- Hilabetero, herrian eta herritarrei gertatutako erasoen berri kuantitatiboa emango da. Eta urte amaieran ere, urteko balantzea zabalduko da.

2.- HEDABIDEETAN HARREMANETAN JARTZEKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KASUEN BERRI EMATEKO ERABAKIAK.

Honako hau aintzat hartuta:

- Hedabideak indarkeriaren aurkako borrokan egindako aurrerapausoak zabaltzeko berebiziko bitartekoak dira.

- Hala ere, guztiek ez daukate gai hauek jorratzeko jarraibide egokirik.
- Albistea berehala eman beharrak herri-erakundeen adierazpenak albait arinen egiteko presioa sortuko du.

Beasaingo Udalak honakoa proposatzen du:

- Aurrerantzean, Udaltzaingoak, Komunikazio, Ongizate eta Berdintasun sailei emango die Ertzaintzatik jasotako informazioa.
- Hedabideei emango zaien informazioa Udaleko komunikazio-bulegoan zentralizatuko da. Bulego horrek, komunikazio arina izan beharko du Berdintasun, Ongizate eta Udaltzain zerbitzuetako sailekin.
- Ez da bat-bateko erantzunik emango, kasuari buruzko informazioa alderatu arte.
- Informazio zehatzagoa eskatzen dutenak (kazetari, elkarte.....) Ertzaintzako prentsa gabinetera bideratuko dira.
- Salaketa egin den kasuetan, Herriko Emakume Elkarte eta Talde Feministei, gertatutakoaren berri idatziz emango zaie.
- Beti gogoraraziko da, zeintzuk diren indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei laguntzeko baliabideak, batez ere, hizkuntza ugaritan erabilgarri dauden, eta fakturan agertzen ez diren 24 orduko doako telefono-zenbakiak. Halaber, gaiaren inguruan bestelako kezkarik dutenek ere telefono hauetara dei dezakete:

Arriskuan bazaude edo eta lesiorik baduzu 112

Informazioa nahi baduzu 900 840 111

Udaleko Ongizate Zerbitzua 943 028 050

3.- BIKTIMAREKIKO ETA INGURUKOEKIKO HARREMANA BIDERATZEA, SEXU ERASOAK EDO EMAKUMEEN AURKAKO BESTELAKO INDARKERIA-AGERPENAK GERTATZEN DIRENEAN.

Honako hau aintzat hartuta:

- Indarkeriari aurre egin dioten edo egiten dioten emakumeak izango dira protagonistak. Beraiek erabakiko dute, jasan duten bizipenaren berri ematea nahi duten edo ez, eta ematekotan, nola emango den.
- Eraso kasuetan, familiak Udaleko politikarien babesa jasoko du.

Beasaingo Udalak honakoa proposatzen du:

- Indarkeriazko edozein ekintzaren berri dugunean (komunkabide, polizia, biktima, udalerriko auzokide edo beste inoren bidez) lehentasuna biktimarekin harremanetan jartzeak izango du edo, heriotza eragin duenean, haren familiarekin.
- Biktima neska adingabea bada, lehenik eta behin familiarekin edo legezko tutorearekin jarriko gara harremanetan, beharrezko laguntza eskaintzeko.

Kaltetu dezakeen informaziorik ez da batere emango (bere inguruarekin identifikatzeko edo lotzeko balio duenean), intimitate-eskubidea bermatzeko eta biktimizazio bikoitza ez gertatzeko.

- Biktimaren edota familiaren asmoa zein den jakindakoan, elkarrekin ekintza publikoak antolatu daitezke.

4.- SEXU ERASOAK EDO EMAKUMEEN AURKAKO BESTELAKO INDARKERIA-AGERPENAK GERTATZEN DIRENEAN HERRITARRAK MOBILIZATZEKO DEIALDIAK EGITEKO PROZEDURA.

Honako hau aintzat hartuta:

- Heriotza eragiten duen emakumeen aurkako indarkeria kasuetan, jarduteko protokoloa badago ere, biktimaren heriotza eragiten ez duten kasuen aurrean nola jardun jakiteko ez dago protokolo bateraturik.
- Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko manifestazioak eta horietako deialdia egiteko eskubidea edonork dauka, bai herri erakundeek, bai edozein pertsona nahiz taldek ere.

Beasaingo Udalak honakoa proposatzen du:

- Udalak elkarretaratze deialdia egingo du eta, herriko elkarteei eta norbanakoei elkartzeko gonbitea egingo die. Hala ere, bai herri-erakundeek, bai elkarteek, beharrezko deritzotenean herritarrak deitzeko eskubidea dute.

- Kontzentrazioen helburuari buruzko hausnarketa egitea, izan ere, kontzentrazioak ekintza matxisten aurrean isiltasuna hausteko modua izan daitezke, baina sentsibilizazioa eta kontzientzia sortzeko ere balio dute. Hori dela eta, kasu jakin baten aurrean kontzentrazioa antolatzen denean, garrantzitsua da eskura dugun informazio guztia egiaztatuta izatea.

- Heriotza kasuak, sexu erasoak, edota emakumeen kontrako beste edozein indarkeria salaketak herrira mugatuko ditugu. Horrekin batera, zenbait kasutan, egoeraren arabera, salaketa egiteko erabakia hartuko dugu.

- Erasoak zuzenean salatuko ditu Beasaingo udalak eta herritar eta eragile guztiak salaketa egitera gonbidatuko ditu.

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-02-01etik 2016-03-17 bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2016-02-01etik 2016-03-17 bitarte emandako Ebazpenak.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.